

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Ondasun higiezinaren gaineko 2020ko zerga borondatezko epean ordaintzea

Consuelo Auzmendi Jiménez Asparreneko Udaleko alkateak,

jakinarazten du 2020ko urriaren 5etik abenduaren 5era bitarteko egun baliodunetan, bi horiek barne, ordaintzeko moduan egongo direla, borondatezko epean, landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea.

a) Borondatezko epea: 2020ko urriaren 5etik abenduaren 5era, egun biak barne.

b) Premiamendu aldia: 2020ko abenduaren 6tik aurrera, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiarazita eta dagokion errekargua aplikatuta (Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, 28. artikulua).

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

a) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

b) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenean Udalaren diruzaintzan (udal bulegoak, Herriko enparantza, 1. Araia) ordaindu ahal izango dute borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Era berean, ordainketa dirutan egin daiteke, udalak Kutxabank, Euskadiko Kutxa eta Caixan dituen kontuetakoren batean.

III. Gomendioak.

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Asparreneko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2020ko irailaren 4a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ